

2021eko PROIEKTU DEIALDIA : FIKZIOZKO FILM LABURRAK

Akitania Berriarekin abiatu 2021-2023ko Helburu eta Baliabide Kontratuaren kariatara, Kanaldude telebista kateak, 2021an, fikziozko film laburrentzat (irudi errealak edota animazioa) proiektu deialdi bat proposatzen du.

Proiektu-deialdiaren bururatzea : 2021eko martxoaren 31a

Txostenak telebista katean aztertuak izanen dira, mundu profesionaletik datozen irakurleekin osatu hautaketa-batzordean. 2021an, Kanaldude engaiatzen da 2 film laburren aurre-erostea, orotara 10 000€-ko ekarpena eginez eta beharrez industria-ekarpen bat eginez (proiektuaren beharren arabera zehaztekoa). Proiektu eramaileei azkarki aholkatzen zaie hautagarritasun irizpideak kontutan hartzea.

PROIEKTUEN HAUTAKETA

Telebista kateko ordezkariak eta mundu profesionaletik datozen irakurleek hautaketa-batzorde bat osatuko dute. Proiektuen alde bateko hautaketa berantenez 2021eko apirila bukaeran egingen da.

HAUTAGARRITASUN IRIZPIDEAK

GENEROA : Fikziozko film laburrak (irudi errealak edota animazioa).

HAUTAGAIK :

Proiektuek gutierrez ondoko irizpide bat bete behar dute:

- Proiektua eramaten duen ekoizpen-egitura Akitania Berria eskualdeko lurraldean finkatua da eta nagusiki ikus-entzun edo zinema ekoizten du (APE 5911 A edo C kodea duten sozietate edo elkarteak)
- Proiektua eramaten duen autore edo zuzendariak bere bizitegi nagusia Akitania Berria eskualdeko lurraldean du

- Proiektuak kultur harreman azkarra du Akitania Berriarekin; izan lurraldeko ezaugarri kultural, historiko, sozial edo ekonomikoekin.

TEMATIKAK : Aske.

FILMAREN JATORRIZKO HIZKUNTZA : Euskara.

BESTE IRIZPIDEAK :

Irakurketa-batzordeak ondoko irizpideei kasu eginen die :

- Proiektuak kalitatezkoak izatea : proposatu gaien egokitasuna, gidoiaren kalitatea eta taula zuzendaritzaren orijinaltasuna.
- Produkzio eta banaketa estrategia
- 2022ko ekainetik goiti hedatzeko prest izatea
- Proiektuaren kariatara euskarazko gaitasun artistikoei edota teknikoei dei egitea edo horretarako formatzea.
- Proiektuek CNC eta Akitania Berria eskualdearen diru-laguntzen irizpideei erantzutea (laguntza automatikoak edo selektiboak)

PROIEKTUEN AZTERKETA

Film laburrei dedikatu diru-laguntzak galdegiteko eta muntaketa finantziario baten perspektiban, txostena nagusiki frantsesez idatzia izatea aholkatua da. Gidoia euskaraz idatzia izan daiteke.

Proiektuak 2021eko martxoaren 31a arte igor daitezke, e-postaz, fitxategi bakarrean (PDF formatuan, gehienez 10 Mo) helbide honetara: prod@kanaldude.eus

Proiektuen hautagarritasuna egiaztatu ondoan eskuratzeko-agiri bat igorriko zaie proiektu-eramaileei, proiektua errezibitu den egunetik goiti aste bat barne.

Txostenean ondoko elementuak agertu beharko dira:

- Fitxa artistiko eta tekniko bat autore, zuzendari, produktore eta koproduktoreen deitura-helbideekin; produkzioaren plangintzarekin; filmaren ezaugarri teknikoekin (iraupena, formatua...); filmaketa eta postprodukzio lekuekin; talde artistiko eta teknikoaren zerrendarekin.
- Filmaren laburpena
- Autorearen edo zuzendariaren xede nota.
- Produktorearen xede nota.
- Gidoia
- Zuzendaritza nota bat filmaren tratamendua zehazteko.

- Aurrekontu zehatza
- Finantzamendu-plana, bildu diren finantzamenduak zehaztuz
- Autoreen eta film-egileen CVa
- Proiektu-eramaile den produkzio sozietatearen edo elkartearen aurkezpena.
- Autorearen eta produktorearen artean izenpetu eskubideen lagatze kontratuaren kopia bat
- 3 hilabete baino guttiagoko Kbis dokumentua sozietateentzat, edo prefeturako frogagiria elkarreentzat.

Kontaktua :

Loïc Legrand

loic@kanaldude.eu